Asier Bidart Meabe (1. guzdira 1)
Hizkuntza Normalizazioko Tek. / Téc. Normalización Lingüística
Sinaduraren data: 29/07/2021
HASH: 9ea59338d8ae957a4d19015528 3db932

SORMENE, SORKUNTZEN GALDAKAOKO PLAZA IZENEKO EGITASMOA EUSKARAZ DISEINATU, ANTOLATU, EKOIZPEN TEKNIKOA ETA ARTISTIKOA EGIN ETA GAUZATZEKO ZERBITZUA

Klausula teknikoen agiria

1.- KONTRATUAREN XEDEA

Kontratu honen xedea da *SORMENE, sorkuntzen Galdakaoko plaza* izeneko egitasmoa euskaraz diseinatu, antolatu, ekoizpen teknikoa eta artistikoa egin eta gauzatu. Udalak Galdakaoko kulturgintzarekin adostutako tokietan eta egunetan garatuko da, euskarazko kultura adierazpide anitzen (literatura, musika, bertsolaritza, dantza, antzerkia, ikus-entzunezkoak, arte plastikoak...) eskaintza egiteko helburuarekin ez ezik, baita herritarren artean sormena eta transmisioa sustatzeko ere.

Proiektua udalerriko herritarren eskari eta ezaugarrietara egokituko da, baita Galdakaoko Udaleko Euskara Arloak ezarritako jarraibideetara ere, eta plegu honetan jasoko diren baldintzekin bat etorriko da.

1.1 HELBURU OROKORRA

Euskal kulturzaleak sortzea eta sustatzea izango da *SORMENE* izeneko proiektuaren helburu orokorra. Honako helburuak lortu nahi dira proiektu honen bitartez:

- Euskaldunak euren kulturara ekartzea, ekintza eta esku-hartze desberdinen bitartez.
- Euskal kulturgintzaren kulturzaleak sortzea, eta transmisioa bermatuko luketen espazioak eta aukerak sustatzea.
- Sortzaileak izango diren zaleak erakartzea.
- Antolatzaileak izango diren zaleak sortzea: herri ekimenetan zein erakunde publikoetan arituko direnak.
- Euskal kulturgintzan sormenarekin lotutako egitasmo berritzaile eta erreferente bihurtzea.

Baliozkotze Kod.: 6A7Y67757H72WW4YQLCP3NLRS | Egiaztapena: https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 1. orrialdea, guztira 26

1.2 BERARIAZKO HELBURUAK

- Euskarazko SORMENEzko jarduera soziokulturalak Galdakaoko herritarren kezka eta eskarietara egokitzea.
- Adingabeengan eta herritarrengan, oro har, euskarazko kulturgintzarekiko ohitura sustatzea, xede horretarako jarduera eta esparru egokien bitartez.
- *SORMENE Sorkuntzen Galdakaoko plaza* dinamizatzea gizarte eta kultur adierazpide guztietako jardueren bitartez, besteak beste.
- *SORMENE Sorkuntzen Galdakaoko plaza*ren parte izango den liburu eta disko azokan, euskarazko ekoizpena sustatzea, eta emakumeen eta galdakoztarren beraien sorkuntza ere bereziki nabarmentzea.
- SORMENE aitzakia dela, Galdakaoko kultur eragileen zein kulturzaleen arteko elkarlana sustatzea, modu antolatu batean sustatu, Talde Eragile-Aholkulari bat abian jarriz.
- Beste herrietan horrelako kultura eta euskara inguruko egitasmoekin saretzearen alde egitea.
- SORMENE proiektuaren bereizgarria litzateke batez ere emakume sortzaile euskaldunen lanak nabarmentzeko gaur egun dagoen hutsunea betetzea.
- Euskararen inguruan Galdakaorako proiektu berritzailea eta erakargarria sortzea, eredu eta erreferente bihur dadin. SORMENE euskararen erabilera sustatzeko egitasmoa ere izatea.

Hori guztia aintzat hartuta, SORMENE egitasmoak honako lau erronka nagusiei erantzungo die gutxienez:

1) Sormena: pertsonaren garapen integralerako ezinbesteko bitarteko gisa era sistematiko batean lantzea heziketa prozesu osoan, bai hezkuntza arautuan zein ez arautuan.
2) Plazak: Euskal Herriko plaza fisiko eta birtualetan bertoko kulturgintza izatea nagusi.
3) Komunikazioa: euskaraz sortzen dena herrikide guztienganaino iritsiko dela bermatzea.
4) Transmisioa: Euskal kulturgintzaren transmisioa bermatzea etxean, hezkuntza arautuan zein ez arautuan.

Erronka horiei aurre egiteko, Galdakaoko kulturgintzaren ekosistema osatzen duten

Baliozkotze Kod.: 6A7Y67757H72WW4YQLCP3NLRS | Egiaztapena: https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 2. orrialdea, guztira 26

eragileen arteko elkarlana sustatuko da (Talde Eragile-Aholkularia, sortzaileak, antolatzaileak, hezitzaileak, komunikabideak, zale aktiboak, kulturarekiko herritar pasiboak…). Elkarlan horretatik proposatu, eztabaidatu, adostu eta gauzatuko dira SORMENE osatuko duten ekintzak, baita Galdakaoko Udaleko Euskara Arloarekin lankidetzan proposa daitezkeenak ere.

2.- DATAK, TOKIA ETA ORDUTEGIA

2.1 DATAK:

SORMENE egitasmoa urte osoan zehar gertatzen da. Ikastetxeekin harremana, Talde Eragile-Aholkulariarekin koordinazioa, partaidetza, ebaluazioa e.a. Horregatik, enpresa esleipendunak urte osoko egutegi bat aurkeztuko du.

Publikoari zuzenean eskainitako ekimenak, SORMENE PLAZA deituko duguna, urtean 6 egunetan zehar egingo da:

- 2021 urtean, azken hiruhilekokoan egingo da. Aurreikusitako datak: azaroaren 16tik 21era. Arrazoituta, Udalak eta enpresa esleipendunak beste data bat adostu ahalko dute, betiere, urtean 6 eguneko plaza antolatuta. Ezinbesteko kasuek behartuta, 2022ko ekainaren 30era arte atzeratu ahal izango da.
- 2022 urtean, bi une desberdinetan antolatuko da SORMENE PLAZA: udaberrian, hiru egunetan zehar ostegunetik larunbatera eta udazkenean hiru egunetan zehar ostegunetik larunbatera. Data zehatza Udalak eta enpresak adostuta erabakiko dute eta arrazoituta eta adostuta, adierazitako irizpideak aldatu ahal izango dituzte, betiere, dagokion urtean 6 eguneko plaza antolatuz gero. Ezinbesteko kasuek behartuta, 2023ko ekainaren 30era arte atzeratu ahal izango da.

  SORMENEren edizio bat atzeratu behar izateak, hurrengo edizioen data atzeratzea ekarriko du. Udalak eta enpresa esleipendunak adostuko dute atzeratutako edizioen egutegia, beti ere, 2021eko 6 eguneko edizioa, 2022ko 3 eguneko edizio biak, eta kontratua luzatuz gero, 2023ko 3 eguneko edizio biak eginda izan beharko dira 2024ko ekainaren 30erako.

2.2 TOKIAK:

Bi espazio izango dira SORMENE PLAZA garatzeko gune nagusiak.

Baliozkotze Kod.: 6A7Y67757H72WW4YQLCP3NLRS | Egiaztapena: https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 3. orrialdea, guztira 26

1) Ardanza Parkea edo Udalarekin adostuko den erdiguneko espazio baten jarriko den karpa
2) Torrezabal Kultur etxea

- 2021 urtean, azken hiruhilekoan egingo da. Aurreikusitako datak: azaroaren 16tik 21era. Astearte, asteazken eta ostegunean Torrezabal Kultur etxean egingo dira emanaldiak eta ostiral, larunbat eta igandean Ardanza Parkean edo Udalarekin adostuko den erdiguneko espazio baten jarriko den karpan.
- 2022 urtean bi une desberdinetan antolatuko da SORMENE PLAZA eta une bakoitzak gune nagusi desberdina izango du:
    - Udaberrian, hiru egunez, Ardanza Parkea edo Udalarekin adostuko den erdiguneko espazio baten jarriko den karpa izango da SORMENEren gune nagusia.
    - Udazkenean, Torrezabal kultur etxeko areto nagusia izango da SORMENEren gune nagusia.

Hala ere, kokapen nagusi horietaz gain, beste espazio batzuetan ere izan dezake bere garapena: zenbait kale, kultur etxe, liburutegiak, ikastetxeak, auzoak, etab. Beraz, jarduera-programazioa espazio anitzari egokituko zaio. Dena den, dena koordinatuta eta osotasun baten barruan proposatu eta antolatuko da.

2.3 ORDUTEGIA.

SORMENE PLAZAren ohiko ordutegia honako hau izango da: goizez 10:00etatik 13:30era eta arratsaldez 17:00etatik 20:30era. Ordutegi hori asteburuan zabalagoa izan daiteke. Nolanahi ere, organo kontratugileak finkatzen duen ordutegiaren arabera egingo da zerbitzu-prestazioa, eta hura aldatzeko eskubidea ere izango du, onura publikoa kontuan hartuta eta ezarritako programazioan oinarrituta. Esaterako, ikastetxeei zuzendutako ekintzak eskola-ordutegiari lotuko zaizkio.

SORMENE urte osoko egitasmoa dela esan dugu, urtean zehar koordinazio eta prestaketa lanak egin beharko direlako ikastetxeekin, Talde Eragile-Aholkulariarekin eta Udalarekin. Enpresa esleipenduna hauen ordutegira egokitu beharko da eta ez da ordutegi finkorik egongo. Koordinazio lanetarako eta prestaketa lanetarako, urtero 450 lan orduko poltsa aurreikusten da koordinatzaile nagusiarentzat, eta 190 lan orduko poltsa bana laguntzaile bakoitzarentzat (bi aurreikusten dira). Lana urtarriletik maiatzera eta irailetik abendura

Baliozkotze Kod.: 6A7Y67757H72WW4YQLCP3NLRS | Egiaztapena: https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 4. orrialdea, guztira 26

gauzatuko da. Enpresa esleipendunak egutegi bat aurkeztu beharko du aurreikuspenak jasota.

3.- ZERBITZUAREN EDUKIAK ETA EZAUGARRIAK

Kontratu honen garapen egokiak hiru sasoi desberdin eskatzen ditu bere garapen egokirako: proiektua garatu orduko prestaketa lanak, proiektuaren exekuzio-fasea eta itxiera-fasea.

Aurreikusten diren gutxieneko lanak honako zerrendan laburbiltzen dira:

a. Ingurune digitala sortu, garatu, koordinatu eta edukiz hornitu eta elikatu.
b. Talde Eragile-Aholkulari bat sortu eta koordinatu, SORMENE proiektuaren antolaketan herritarren partaidetza urtez urte modu antolatu batean sustatzeko.
c. Jarduera eta ekitaldi egitaraua sortu.
d. Jardueren antolaketarako bitartekoak.
e. Koordinazioa.
f. Espazio balioanitza egokitzea eta behin-behineko azpiegiturak.
g. Espazioaren apainketa egokia.
h. Publizitate euskarriak eta komunikazioa.
i. Instalazio elektrikoaren zerbitzua.

a.- Ingurune digitala sortu, garatu, koordinatu eta elikatu.

Adierazitako kokapen fisikoaz gain, SORMENE proiektuak bere atari digital propioa izango du, eragiten duen ekoizpen guztia jasoko duena (Galdakaoko Udalaren webgunean jarriko da ikusgai eta lotura izango du udalerriko beste zenbait webgunerekin ere: ikastetxeetakoak, herri komunikabideetakoak, etab.). Enpresa adjudikaziodunak sortuko du ataria proiektua hasi orduko, eta bere ardura izango da egunero edukiz elikatzea eta berori dinamizatzea Galdakaoko Udaleko Euskara Arloarekin koordinatuta, eta kasuan kasu egoki irizten diren bitartekokoak jarriko ditu. Ingurune digital hori dinamikoa eta erakargarria izango da eta diseinu argia eta berritzailea izango du.

Ingurune digital horren parte izango da Streaming-a. Enpresak udalarekin adostuko du

Balioztatze Kod.: 6A7Y67757H72WW4YQLCP3NLRS | Egiaztapena: https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 5. orrialdea, guztira 26

SORMENEren egitarautik bi orduko lau saio gutxienez streaming bidez emititzea.
Streamingaren ezaugarriak:

- Ekitaldiak streaming bidezko emisioan eskainiko dira osorik, gutxienez 1280x720 (720p) edo 1920x1080 HD (1080p) bereizmenarekin.
- Ekitaldiaren bideo-grabazioa Interneten ikusi ahal izango da, ekitaldia egin eta 24 ordu igaro baino lehen.
- Udalari ekitaldiaren bideo-grabaziotik ateratako azken edizioaren kopia bat bidaliko zaio, MP4
- 1280x720 (720p) edo 1920x1080 HD (1080p)formatuan.
- Esleipendunak Sormeneren inguruan sortuko den webgunean zintzilikatuko ditu egindako grabazioak, eta horrela elikatuko du webgune hori.
- Esleipenduna arduratuko da edizioaz. Edizioak elementu hauek izango ditu: hasierako introa eta azken outroa, programaren eta ekitaldiaren informazioa, saioa egingo den tokia eta data, eta parte hartuko duten pertsona, talde edo artisten izena.
- Esleipendunak edukiak ekoizteko behar diren giza baliabideak eta baliabide materialak eman beharko ditu: langileak, sare digitalak, tripodeak, audioa grabatzeko tresnak, argiztapen- elementuak (behar izanez gero).

b.- SORMENEren Talde Eragile-Aholkularia sortu eta dinamizatu.

SORMENE egitasmoa herritarren behar eta nahietan oinarrituta dago. Hortaz, ezin bestekoa da, egitasmoa eta beraien arteko erlazioa diseinatu, sortu eta garatzea.

Horretarako herriko eragile eta norbanakoez osatutako Talde Eragile-Aholkulari bat sortuko da.

Enpresa esleipendunak, Galdakaoko Udaleko Euskara Arloarekin batera Talde Eragile-Aholkulariaren sorrera kudeatuko du. Enpresa esleipendunak, taldearen dinamizazioaz eta idazkaritzaz arduratuko den koordinatzailea izendatuko du. Urtean zehar dinamizaziorako erabiliko den lan metodologia adierazi beharko da. Batzarren maiztasuna, iraupena, partaideak eta abarren aurreikuspen bat eta horrez gain talde honen eta proiektuko beste eragile guztien arteko erlazioa nola koordinatuko den azalduko da.

Baliozkotze Kod.: 6A7Y67757H72WW4YQLCP3NLRS | Egiaztapena: https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 6. orrialdea, guztira 26

- 2021 urtean, Talde Eragile-Aholkularia sortzeko prozedura definituko du enpresa esleipendunak, taldearen funtzioak definituko ditu eta lan metodologia diseinatuko du, Udaleko Euskara Arloarekin koordinatuta. Enpresak taldea sortzeko pausoak emango ditu eta gutxienez, 2021eko Jendaurreko SORMENE PLAZAren balorazioa egiteko deituko du.

- 2022 urtean gutxienez 4 lan saio izan beharko ditu enpresa esleipenduneko koordinatzaileak Talde Eragile-Aholkulariarekin. SORMENEren diseinuan parte hartzeko saio bat (udaberrikoa eta udazkenekoa), antolaketa-ekoizpenean parte hartzeko saio bi (bat udaberrian eta bestea udazkenean) eta urteko balorazioa egiteko saio bat.

c.- Jarduera-egitaraua eta ekitaldiak.

Proiektuaren helburuak betetzeko teknikoki egokienak diren jarduerak hautatu eta proposatuko dira, urtero sei eguneko programazio zehatza eta adostua gara dadin.

C.1. Jendaurreko SORMENE PLAZArako honako eremuetako eta era honetako **gutxieneko jarduerak** aurreikusten dira:

Jendaurreko SORMENE PLAZAren EZAUGARRIAK ETA ZEHAZTASUNAK- 2021

Aurreikusitako DATAK	DATA-BANAKETA	LEKUA	GUTXIENEKO EKIMENAK
2021 **Azaroak 16-21**	Azaroak 16-18	Torrezabal Kultur Etxea	-Hasiera-ekitaldia -Goizez, ikastetxeei zuzendutako ekimenak (gutxienez egunean ekimen, ziklo desberdinei zuzenduta: HH, LH, DBH eta DBHO). -Arratsaldez publiko orokorrarentzat sortutako arte adierazpe desberdinez osatutako programazioa, hauetako ekimen batzuk jas ditzakeena: haur eta gaztetxoei zuzendutako tailerrak edo ekimenak, antzerkia, ilustrazioarekin lotutako jarduerak, dantz literatura, musika, ikus-entzunezkoak, mahai-inguruak, hitzaldia emanaldiak, gurasoentzako zein irakasleentzako saioak, ipu kontaketak, liburu aurkezpenak, edo enpresa esleipenduna helburuak betetzeko proposatuko lukeen edozein.

Baliozkotze Kod.: 6A7Y67757H72WW4YQLCP3NLRS | Egiaztapena: https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 7. orrialdea, guztira 26

2021 **Azaroak 16-21**	Azaroak 19-21	Karpa	-Itxiera-ekitaldia -Ostiralean goizez, ikastetxeei zuzendutako ekimenak. -Ostiral arratsaldez, eta larunbat eta igande goiz eta arratsaldez, publiko orokorrarentzat sortutako arte adierazpen desberdinez osatutako programazioa, hauetako ekimen batzuk jaso ditzakeena: haur eta gaztetxoei zuzendutako tailerrak edota ekimenak, antzerkia, ilustrazioarekin lotutako jarduerak, dantza, literatura, musika, ikus- entzunezkoak, mahai-inguruak, hitzaldiak, emanaldiak, gurasoentzako zein irakasleentzako saioak, ipuin kontaketak, liburu aurkezpenak, edo enpresa esleipendunak helburuak betetzeko proposatuko lukeen edozein.

Jendaurreko SORMENE PLAZAren EZAUGARRIAK ETA ZEHAZTASUNAK- 2022

DATAK	DATA-BANAKETA	LEKUA	GUTXIENEKO EKIMENAK
Udaberriko 3 egun	Ostegunetik larunbatera	Karpa	-Hasiera/itxiera ekitaldiak -Ostegun eta ostiral goizetan Ikastetxeekin eta herri-eragileekin elkarlanean proposatutako jarduerak: ostegunean eta ostiralean bina ekimen ikas ziklo desberdinak aintzat hartuz, HH, LH, DBH, Batxilergoa. -Goizez, Booktuber edo ikastetxeek bideratut lehiaketako/lehiaketetako sari banaketa ekitaldiak. -Liburu eta disko azoka. -Ostiral arratsaldez eta larunbat eta igandean goiz arratsaldez, publiko orokorrarentzat sortutako arte adieraz desberdinez osatutako programazioa, hauetako ekimen bat jaso ditzakeena: haur eta gaztetxoei zuzendutako taile edota ekimenak, antzerkia, ilustrazioarekin lotutako jardue dantza, literatura, musika, ikus-entzunezkoak, mahai-inguru hitzaldiak, emanaldiak, gurasoentzako zein irakasleentz saioak, ipuin kontaketak, liburu aurkezpenak, edo enpr esleipendunak helburuak betetzeko proposatuko luk edozein.
Udazkeneko 3 egun	Ostegunetik larunbatera	Torrezabal Kultur	-Hasiera/itxiera ekitaldiak - Ostegun eta ostiral goizetan Ikastetxeekin eta herri-eragilee

Baliozkotze Kod.: 6A7Y67757H72WW4YQLCP3NLRS | Egiaztapena: https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 8. orrialdea, guztira 26

		Etxea	elkarlanean proposatutako jarduerak: ostegunean eta ostiralean bina ekimen ikas ziklo desberdinak aintzat hartuz, HH, LH, DBH, Batxilergoa. -Ostiral arratsaldez eta larunbat eta igandean goiz eta arratsaldez publiko orokorrarentzat sortutako arte adierazpen desberdinez osatutako programazioa, hauetako ekimen batzuk jaso ditzakeena: haur eta gaztetxoei zuzendutako tailerrak edota ekimenak, antzerkia, ilustrazioarekin lotutako jarduerak, dantza, literatura, musika, ikus-entzunezkoak, mahai-inguruak, hitzaldiak, emanaldiak, gurasoentzako zein irakasleentzako saioak, ipuin kontaketak, liburu aurkezpenak, edo enpresa esleipendunak helburuak betetzeko proposatuko lukeen edozein.

2021ean zein 2022an aurkezle bat egongo da ekitaldi guztietan zehar, artistarekin interakzioa izango duena eta publikoari informazio gehigarria emango diona eta hitz egiteko aukera ere bai.

Kontratuaren luzapena eginez gero, SORMENEk hurrengo ekitaldian ere 2022ko formatuari eutsiko lioke.

Enpresa lizitatzaileak SORMENE proiekturako jarduera-programazio zehatz bat proposatuko du, eta behar bezala garatzeko behar diren alderdi guztiak jasoko ditu, COVID-19k eragindako osasun-krisiari aurre egiteko behar diren segurtasun- eta prebentzio-neurriak barne.

Lizitatzaileak, sei eguneko programa aurkeztuko du, jarraian zein une bitan banatutako edizioa izan (udaberria eta udazkena), baina ekitaldien kalitate eta kantitatean oreka mantenduz. Programan, SORMENE proiektuko jarduera bakoitzaren deskribapen zehatza jasoko den: hartzaileak, inplikatutako gizarte-eragileak, iraupena, ekintza-mota, azalpen laburra, etab.

Sortzaileen sustapena (batez ere emakumeenak eta herritarrenak) ahalbidetuko duten ekimen berritzaile eta erakargarriak jasoko ditu programak.

Enpresa adjudikaziodunak, Galdakaoko Udaleko Euskara Arloarekin erabakiko da egitaraua. Egitarau hau osatzeko Talde Eragile-Aholkulariarekin, udalerriko kultur

Baliozkotze Kod.: 6A7Y67757H72WW4YQLCP3NLRS | Egiaztapena: https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 9. orrialdea, guztira 26

ekosistemako eragileekin zein Euskal Herriko kultur ekosistemako hainbat eragilerekin batera elkarlana sustatuko da. Enpresa adjudikaziodunak etengabe emango dio Galdakaoko Udaleko Euskara Arloko arduradunari SORMENEren berri.

SORMENE, sorkuntzen Galdakaoko plazak dirauen bitartean, egun guztietan antolatuko dira era desberdinetako ekintzak, goiz eta arratsaldez.

SORMENE plazako egitaraurako udalerriko eragileekin proposatu, eztabaidatu eta adostu daitezkeen jarduerak aurreikusiko dira, betiere oinarrian SORMENEk dituen irizpide eta helburuekin bat baletoz. Jardueren balorazio zehatzaren arabera ere moldagarriak izan litezke hurrengo edizioetan.

Jendaurreko SORMENE PLAZAren oinarrizko jarduerek honako izaera izango dute:

- *SORMENE proiektuaren irekiera eta itxiera ekitaldiak gune nagusian*

SORMENE Plazari hasiera emateko ekitaldia antolatuko da, zenbait jarduera garrantzitsu eskainiz eta askotariko partaideekin. Azken egunean, amaiera-ekitaldia ere aurreikusiko da, hainbat sortzaileren parte-hartzearekin. Ekitaldi horren zabalkundea ere aurreikusiko du komunikabide desberdinetan.

- *Ikastetxeekin elkarlanean proposatutako jarduerak*

Eskola egunetan, eskola-ordutegiaren barruan, ikastetxeekin elkarlanean antolatutako jarduerak aurreikusiko dira (HH, LH, DBH zein DBHO), eta haiek guztiek izango dute parte hartzeko aukera. Unkina eta Aperribai ikastetxeei dagokienez, ikasleak garraiatzeko zerbitzua ere eskainiko du adjudikaziodunak.

Ikastetxeek landu eta proposatutako ekimenek SORMENE plazan lekua izatea bermatuko da, betiere SORMENE proiektuak dituen helburuakaz bat baletoz. Era honetako jardueren garapenerako bete-betean koordinatuko da enpresa adjudikazioduna ikastetxeekin eta Euskara Arloarekin.

- *Herritarrentzat proposatutako jarduerak*

Udalerriko herritarrek ere parte har dezaten sustatzeko kultur adierazpide askotako

Baliozkotze Kod.: 6A7Y67757H72WW4YQLCP3NLRS | Egiaztapena: https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 10. orrialdea, guztira 26

ekitaldiak eta jarduerak antolatuko dira SORMENE plazak zabalik dirauen egunetan, goiz eta arratsaldez asteburuetan, eta arratsaldez astegunetan. Edozein kasutan ere, tradiziozko jarduerez gain, ekintza berritzaileak eta erakargarriak ere proposatu eta antolatuko dira.

- *Liburu eta disko azoka*

SORMENE proiektuaren parte izango da eta ostegunetik larunbatera burutuko da udaberriko SORMENEn. Azokan parte hartu nahi duten argitaletxeen eta/edo establezimenduen kudeaketa eta koordinazioa barnean hartzen dituen proposamena egingo da, haur eta gazteentzako zein helduentzako euskarazko produktuen aniztasuna eta aukera handia aintzat hartuta, eta emakume sortzaileen zein galdakoztarren lana nabarmenduta betiere, bai musikari, bai literaturari, bai bestelako kultur adierazpideei dagokienean.

Aldez aurretik, parte-hartzaileen zerrenda aurkeztuko da Udalean, eta erakutsitako produktuak erakargarriak izan daitezen saiakera egingo da; herritar orokorren kezka, eskari eta ezaugarrietara ez ezik, Galdakaoko Udalaren Euskara Arloak finkatzen dituen ildoetara ere egokitu beharko dira.

Jarduera desberdinetan parte hartuko duten egileen zerrenda ere aurkeztuko dute (hitzaldi-solasaldiak, ekitaldiak, etab.).

Enpresa adjudikaziodunak kudeatu eta koordinatuko du argitaletxe, disketxe eta gainontzekoek SORMENE proiektuaren egitarauaren parte izango direnenekiko harremana; hori horrela, era guztietako ikusleentzako giro erakargarri eta askotarikoa sortzen saiatuko da. Hartarako, musika-giro atsegina jarriko dute, esparru osoan, kanpoko megafonia-ekipo baten bitartez.

C.2. Jendaurreko SORMENE PLAZArako aurreko puntuan aipatutako jarduerez gain, jarduera hauez gain, enpresek **bestelako jarduerak** proposatu ditzakete egitasmoa hobetzeko:

- Teknologia berriekin lotutako jarduerak.Teknologia berriek gaur egun duten eta etorkizunean ere izan dezaketen garrantzia kontuan hartuta, horren inguruko

Baliozkotze Kod.: 6A7Y67757H72WW4YQLCP3NLRS | Egiaztapena: https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 11. orrialdea, guztira 26

jarduerek ere protagonismoa izango dute SORMENE plazan. Eremu horretako jardueraren bat ere proposatuko da (app-ak, jolas interaktiboak, 3D formatuko ekimenak…).

- Sormena sustatu dezaketen jarduerak.
- Euskara eta kultura oinarritzat daukaten beste egitasmoekin saretze jarduerak.
- Enpresak aurkeztu dezakeen bestelako jarduera berritzaileak. Beti ere proiektuaren helburuekin loturikoak.

d.- Jardueren antolaketarako bitartekoak.

Adjudikaziodunak kontratua behar bezala gauzatzeko behar diren bitarteko edo baliabide material eta giza baliabide egokiak eduki beharko ditu, eta proiektua garatzeko behar adina teknikari kualifikatu jarriko ditu.

Enpresa esleipenduna arduratuko da jarduera eta/edo ekitaldi horiek guztiak kudeatzeaz, antolatzeaz, koordinatzeaz eta gauzatzeaz, eta, horretarako, jarduerak behar bezala garatzeko behar diren langileak, baliabide materialak, azpiegiturak eta instalazioak jarriko ditu, eta bermatuko du une oro betetzen dela COVID-19k eragindako osasun-krisiari aurre egiteko segurtasun- eta prebentzio-neurriei buruz indarrean dagoen araudia. Alegia, programatutako jarduerak dituen gainerako behar teknikoez arduratuko da.

Enpresa adjudikaziodunak programatutako jarduerak koordinatu eta kudeatzen dituzten langileen esku- hartzea ere kudeatuko du.

SORMENE PLAZA karpan egiten denean, jardueren arabera aulki tolesgarriak eta pilagarriak eskainiko ditu, esparruaren dekorazioarekin bat etorriko direnak. Halaber, ekitaldien edo jardueren arabera behar diren tresna, mahai, besaulki, LED pantaila (aurkezpenak, dokumentalak, bideoak, ipuinak, 3D ipuinak... eta antzekoetarako, eta helburuari ondo letorkiokeen tamainakoa), eta gainerako atrezzoak ere hornituko ditu.

Jardueren eta aurkezpenen behar bezalako garapena, antolamendua eta, hala badagokio, koordinazioa bermatzen dituzten behar adina bitarteko material eta giza baliabide eduki beharko ditu une oro enpresak, baita kontratu hau gauzatzeak berarekin dakarren beste edozein motatako laguntza ere.

Baliozkotze Kod.: 6A7Y67757H72WW4YQLCP3NLRS | Egiaztapena: https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 12. orrialdea, guztira 26

Kasuren batean, hala beharko balitz, jarduera baten garapen egokirako aldi bereko itzulpen zerbitzua edo interpretazio zerbitzua ere aurreikusiko luke adjudikaziodunak.

Proposatutako jarduera bakoitza behar bezala hitzartuko da, eta enpresa kontratistak, zerbitzua eman aurretik, haren programa zehatza aurkeztuko du, jardueraren azalpen laburra eta bertan esku hartu behar dutenen zerrenda barne.

e.- Koordinazioa.

Enpresa adjudikazioduna herri-eragileekin koordinatuko da, proiektuan euren parte-hartzea eta inplikazioa bermatzeko. Euren guztien iritziak eta ekarpenak jaso eta bideratuko ditu, betiere Galdakaoko Udaleko Euskara Arloarekin elkarlanean, SORMENE plazaren oinarri eta helburuetan lekua balute, gauzatu eta kudeatu daitezen.

Enpresa adjudikazioduna Talde Eragile-Aholkulariarekin koordinatuko da, proiektuan euren parte-hartzea eta inplikazioa bermatzeko.

SORMENE PLAZAren proiektuaren garapenerako behar diren beste koordinazio-batzar eta jarraipen-batzar aurreikusiko dira. Edozein kasutan, lizitatzaileak zehaztu egingo du egitasmo honen koordinazioa nola garatuko lukeen. Hori guztia bideratzeko, enpresa adjudikaziodunak pertsona arduradun bat izendatuko du solaskide moduan.

f.- Espazio balioanitza egokitzea eta behin-behineko azpiegiturak.

SORMENE proiektua toki eta espazio desberdinetan garatuko da. Gune nagusia ere aldatu egingo da dataren arabera. Aurretik aipatu bezala, 2021eko edizioko hiru egunean eta 2022ko udaberriko hiru egunetan SORMENEren gune nagusia, Ardanza Parkean edo Udalarekin adostuko den erdiguneko espazio baten jarriko den karpa izango da. Kasu hauetan, honakoa kontuan hartu beharko da:

- Gunea egokitzeko beharrezkoak diren behin-behineko azpiegiturak aurreikusi, koordinatu, adostu, muntatu eta desmuntatuko dira, Galdakaoko Udaleko

Baliozkotze Kod.: 6A7Y67757H72WW4YQLCP3NLRS | Egiaztapena: https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 13. orrialdea, guztira 26

Euskara Arloarekin koordinatuta.

- Udaberrian, karpan ostegunetik larunbatera bitartera izango den liburu eta disko azokarako etxolak jartzea ere aurreikusiko da (gutxienez, 8 etxola aurreikusiko dira), 3x2 metroko neurridunak. Etxola bakoitzak bere binilo identifikagarri erakargarria izango du.
- Karpari buruz ari garenean, arkitektura iragankorreko egitura modular bidez egindako espazioari buruz ari gara. Haren iragagaiztasuna eta estankotasuna bermatuko dira, baita egituraren sendotasuna eta haizearekiko erresistentzia ere. Eremu batzuetan beirak jarri ahal izateko aukera emango du, antolatzaileen beharretara eta jarduera-egitaraura egokitzeko. Azpiegitura erakargarria eta apaingarriz hornituta egongo da, proiektuaren kalitateari egokituta egon dadin (fatxadako leku bitan behintzat binilo identifikagarri eta argiztatuak jarriko dira). Azpiegiturak segurtasun neurri guztiak beteko ditu, eta egitura iragankorren inguruan indarrean legokeen araudi guztia bete beharko da.
- Pabiloiak tronadura modular bidezko zorua izango du, bide publikoa ez higatzeaz gainera, hondakinik utziko ez duten zoru-euskarriekin. Behar den tartea egongo da tronaduraren eta zoladuraren artean, euri- urak igaro ahal izateko. Tronadura material hidrofugozkoa izango da, eta erraz garbitzeko moduko ageriko akaberakoa. Zoladura zulatzerik ez da egongo.
- Sarbide zabalak eta erosoak aurreikusiko dira (ate bikoitzak, beirazko alderdiekin, izu-barrarekin, motor elektrikoz hornitutako metalezko pertsianak, edo antzeko beste irtenbideak aurreikusiko dira…), leku itxi zein ireki bezala erabiltzeko aukera eman lezaketenak.
- Agertokiak gutxienez 50 m2-ko oholtza izango du (gehienez metro erdiko altuerakoa), eskailera-mailak eta arrapala izango dituena.
- Ate eta sarrailaz hornitutako bi eremu itxi ere egongo dira espazio horretan, biltegirako eta ikus- entzunezkoen kontrol-gelarako, alegia.
- Jarduera-egitarauaren arabera, pabiloia sailkatu edo banatu daitekeen espazioa izan liteke, txoko desberdinak aurreikusita. Halaber, truss-egitura bat ere ezarriko da agertoki-lerrotik metro batera, haren zabalera osoan (fokoetarako).
- Programazioaren arabera, alderdi batzuetan bitrinak ere aurreikus litezke (erakusketak egiteko, esaterako). Barnealdea egokiturik izango dute liburuak eta bestelako materialak erakusteko, eta pantaila fluoreszente bidezko edo beste edozein motatako argi zuri eta hotzezko argiztapena edukiko dute.

Baliozkotze Kod.: 6A7Y67757H72WW4YQLCP3NLRS | Egiaztapena: https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/
esPúblico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 14. orrialdea, guztira 26

- Haize-sorgailu bidezko edo antzeko beste aire-girotze sistema bat aurreikusiko da.
- Enpresa adjudikaziodunak ezin izango ditu eskainitako zerbitzuen ezaugarri teknikoak (materiala, egitura mota, etab.) eta instalazioa aldatu Udalak aurretik adostasuna agertu gabe, eta aurkeztutako eskaintza bete beharko du ekitaldiaren garapenean arazorik sortu ez dadin.
- Edozein kasutan, larrialdietarako irteerak, su-itzalgailuak eta segurtasun-neurri guztiak aurreikusiko dira, eta enpresa adjudikazioduna arduratuko da material eta azpiegitura guztiak jaso, jarri, bildu, desmuntatu eta garraiatzeaz.
- Espazioak egokitzeak eta mantentzeak eragindako gastuak enpresa adjudikaziodunaren ardurakoak izango dira, hala nola elektrizitatearekin, ur-konexioarekin, segurtasunarekin eta/edo, hala behar izanez gero jar litezkeen hesiekin edo komun eramangarriekin.
- Izan ere, instalazioei eta elementuei dagokienez, baimen guztiak lortu beharko ditu adjudikaziodunak, eta garraio-, muntaketa- eta desmuntaketa-lan guztiak egin beharko ditu, era guztietako instalazioak, hornidurak eta mantentze-lanak barne.
- Hala eta ze, adjudikaziodunak honako agiri hauek aurkeztu beharko dizkio Galdakaoko Udalari:

  -Dagokion instalazioen erantzukizun zibilaren asegurua.
  -Egitura osatzen duten materialen homologazioa egiaztatzeko teknikari eskudunak sinatutako dokumentazioa, eta baita segurtasun eta muntaiaren ziurtagiria ere.
  -Indarrean dagoen Segurtasun araudiaren arabera: autobabes-plana edo aurreikus daitezkeen arriskuetarako baliabideak, dagokion teknikari eskudunak sinatuta.

g.- Espazioa girotzea eta apainketa egokia.

Espazioaren apainketarako neurriak hartuko dira, kanpoaldetik zein barrualdetik, ingurune atsegina eta erakargarria sortuko duena, proiektuari lotua, eta herrian ez ezik kanpoaldean ere bisualizatzeko aukera emango duena, Euskal Herri osoan proiektua erreferente eta eredu bihur dadin.
Proiektuaren logoa eta markaren erabilera egokia aurreikusiko da euskarri, une eta toki desberdinetan, irudi berritzailea eta originala helaraziko duena.

Baliozkotze Kod.: 6A7Y67757H72WW4YQLCP3NLRS | Egiaztapena: https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 15. orrialdea, guztira 26

Beraz, diseinuaren originaltasuna eta erakargarritasun bisuala baloratuko dira: diseinu-euskarri eta -osagai berritzaileak, dekorazio-multzoak eta irudi fresko eta originala ematen duen beste edozein elementu.
Gune nagusiko pabiloiaren kanpoaldea SORMENEren euskarri identifikagarriarekin hornituko da, horretarako beren-beregi sortuko diren argiztatutako euskarri birekin gutxienez.

h.- Gutxieneko publizitate euskarriak eta komunikazioa.

Egitarauaren inguruko publizitate orokorra aurreikusiko du enpresa adjudikaziodunak: eskuorriak, programaren biniloak, rollupak, edo egoki irizten diren beste era bateko publizitate euskarriak, Galdakaoko Udalarekin koordinazioan eta, bere kasuan, harek egin lezakeen komunikazioaren osagarri gisa.

Dagokion materialaren banaketa edo zabalkundea ere aurreikusiko du lizitatzaileak. Era berean, adjudikaziodunak proiektuaren zabalkundea egingo du prentsa, irrati, telebista edota sare sozialen bitartez.

Horretarako guztirako herriko, eskualdeko zein Euskal Herri mailako komunikabideekin elkarlana ere sustatu eta bideratuko da, proiektuak oihartzun zabalagoa izan dezan.

i.- Karpako instalazio elektrikoaren zerbitzua

Karpa jarri behar den guztietan, enpresa adjudikaziodunak zuzenean elektrizitate-enpresarekin kudeatuko du esparruaren linea elektrikoarekiko konexioa, azokaren azpiegitura osoa elektrizitatez hornitzeko, eta enpresa instalatzaile gisa egiaztatzen duen ziurtagiria edo baimena eduki beharko du.

Zerbitzuaren ezaugarriak SORMENE proiektuaren baitan antolatuko diren jarduera eta programazioaren arabera zehaztuko dira (babes-kaxak, aireko hargunea ezartzea Iberdrolaren saretik, instalazio elektrikoa, argiztapena, argia eta korronte-hargunearekin, berokuntza-konbektoreetarako elikadura elektrikoko zirkuitoa egitea, hala beharko balitz…).

Instalazio Elektrikoaren Ziurtagiria idatzi eta Eusko Jaurlaritzaren Industria Sailean oniritzia ematea ere aurreikusiko da. Hargune elektrikoa eta Iberdrolaren kontratua

Balioztatze Kod.: 6A7Y67757H72WW4YQLCP3NLRS | Egiaztapena: https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 16. orrialdea, guztira 26

egiteko kudeaketak egingo ditu enpresak. Hala iritziz gero, zerbitzuaren erretena ere aurreikusiko da, ezustekorik gerta ez dadin.
Izan litezkeen gertakarien aurrean berehalako erantzuna bermatuko da.

Enpresa adjudikazioduna arduratuko da, halaber, instalazioen gainean behar diren izapide eta kudeaketa guztiez (instalazio-buletinak, etab.), baita instalazioak mantentzeaz eta laguntza teknikoaz ere, kontratuak iraun bitartean.

Horrez gain, izan litezkeen matxuretan behar diren ordezkapenak eta konponketak egingo ditu, eta bere gain hartuko ditu, orobat, garraioei, zamalanei zein muntatu eta desmuntatzeko lanei dagozkien gastu guztiak ere.

Era berean, adjudikaziodunak Udalaren langile teknikoei, enpresa instalatzaile gisa egiaztatzen duen ziurtagiri edo baimenaz gain, ekipo elektrikoei dagozkien instalazio-buletinak ere erakutsiko dizkie. Kable- instalazioa eta gainerako ekipamendua behar bezala babestuko du esparruan, istripuak eragoztearren, eta erantzukizun zibileko poliza baten bidez aseguratuko ditu gerta litezkeen gorabehera guztiak.

4.- MEMORIA TEKNIKOA

Proposamenak modu homogeneoan aurkeztea eta balioestea errazteko, memoria tekniko bat aurkeztuko da aurkibide zehatz honi jarraituz eta halaxe baloratuko da:

a) Proiektuaren kontestualizazioa eta jarduera-egitaraua. Berrikuntzak eta sormena.

Proposatzen den proiektuaren arrazoiak eta oinarriak ondo zehaztuta azalduko dira.
Euskararen erabileran eta sustapenean eta baita euskal kulturan ere izan dezakeen eragina arrazoituko da. Berrikuntza- eta sormen-proposamena zehatz-mehatz zehaztuko da.

Urteko plangintza aurkeztu da. Bertan jasoko dira Talde Eragile-Aholkulariarekin koordinazioa nola antolatzen den eta zein lan metodologia jarraituko den. Herriko talde eta ikastetxeekin koordinazioa nola antolatzen den ere azalduko da. 2021 urterako plangintza, irailetik abendura artekoa izango da eta 2022 urterako plangintza urtarriletik

Baliozkotze Kod.: 6A7Y67757H72WW4YQLCP3NLRS | Egiaztapena: https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 17. orrialdea, guztira 26

maiatzera eta irailetik abendura artekoa izango da.

Jarduera eta ekitaldi programari dagokionez, xehetasunez adieraziko da nola egituratuko den: jarduera bakoitzaren hartzaileak, edukiak, kokapena, metodologia eta proposamenaren plangintza. Proposamenaren oinarriak eta azalpena. **Jarduera osagarriak**.

Honako hauek baloratuko dira:

- Azaldutako argitasuna, koherentzia eta proiektuaren beharretara egokitzea.
- Era berean, jarduera berritzaileak eta erakargarriak baloratuko dira, proiektuaren funtsezko ezaugarriekin bat datozenak eta edukiek proiektuari lotuta daudenak. Lizitazioaren xedearekin lotutako proposamen osagarriak baloratuko dira.

b) Lan-metodologia eta ebaluatzeko eta koordinatzeko proposamena.

Proiektua hasi eta amaitu arteko lan-metodologia eta proiektua garatzeko antolaketa-eredua zehaztuko dira, pertsona-kopurua adierazi gabe eta, inola ere, atxiki beharreko pertsonen esperientzia-kontuak aipatu gabe, irizpide automatiko gisa baloratutako alderdiak izango baitira horiek.

Programa behar bezala garatzeko koordinazio-proposamena zehaztuko da, bai Galdakaoko Udalarekin, bai herritarrekin eta gizarte-eragileekin.

Era berean, proiektuaren jarraipen eta ebaluazio-planaren proposamena aurkeztuko da, honako hauei dagokienez: asistentziak, jardueren eta proposatutako eremuen inpaktua, ekintzak helburuetara eta publikoetara egokitzen diren, eta abar.

Honako hauek baloratuko dira:

- Proposamenaren kongruentzia, argitasuna, justifikazioa eta plangintzaren egokitasuna.
- Proiektua kudeatzeko eta koordinatzeko tresnak.
- Kontaktuak egiteko proposatutako modua eta maiztasuna.

c) Azpiegituren eta materialen kalitatea eta ezaugarriak eta espazioaren apainketa,

Baliozkotze Kod.: 6A7Y67757H72WW4YQLCP3NLRS | Egiaztapena: https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 18. orrialdea, guztira 26

girotzea eta seinaleztapena.

Azpiegitura eta baliabide desberdinen proposamena aurkeztuko da, baita proiektua egiteko ekoizpen-elementuak ere (apainketa, girotzea eta seinaleztapena), instalatu beharreko azpiegitura egokitzeko eta girotzeko proposamena barne.

Planoak aurkeztuko dira espazio edo eremu nagusi bakoitzaren planteamenduarekin. Espazio horiek emango zaien erabileraren arabera banatzen badira, plano batean jasoko da, dagozkion argibideekin.

Honako hauek baloratuko dira:

• Behin-behineko azpiegituraren eta beste material batzuen kalitatea eta estetika.

• Apainketa, girotze eta seinaleztapen elementuen originaltasuna, kalitatea, egokitasuna eta kopurua.

Espazioaren antolaketa egokia, proposatutako jarduera-programari dagokionez, eta eskatzen diren irisgarritasun-baldintzak hobetzea.

d) Komunikazio-plana.

SORMENE proiektuaren aurretik, bitartean eta ondoren egingo litzatekeen zabalkundearen proposamena: kanalak, aplikazioak, inprimatutako materiala...

Honako alderdi hauek baloratuko dira:

• Inprimatutako materialaren proposamena (barietatea, banaketa, kokapena, ale kopurua...)

• Sare sozialen erabileraren proposamena eta baita streaming bidezko proiektuaren hedapena eta jarraipenaren aukera, Udalak eskatutako ordu biko 4 saioen gainetik

• Webgunearen diseinu- eta eduki-proposamena.

• Beste batzuk: proposatutako beste hedapen-kanal batzuk (komunikabideak, irratia, telebista...).

5.- ZERBITZUA EMATEKO BETEBEHARRAK

5.1 OROKORRAK

Baliozkotze Kod.: 6A7Y67757H72WW4YQLCP3NLRS | Egiaztapena: https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 19. orrialdea, guztira 26

Enpresa adjudikaziodunaren kontura izango dira kontratatutako zerbitzua guztiz egiteko behar diren gastu guztiak: materiala eta instalazioak, bitarteko instrumentalak, eskulana, Gizarte Segurantza, tributuak, era guztietako erantzukizun eta aseguruak, baita enpresari dagozkion era guztietako gainerako karga eta betebeharrak ere, behin betiko adjudikazioa egiten denetik bere gain hartuko dituenak, eta kontratuaren eta lizitazioan parte hartzearen ondorioz sortzen den beste edozein.

Halaber, AAEN-SGAEren edo programatik erator litezkeen beste zerga, tasa, kanon edo eskubideak ere, enpresa esleipendunak ordaindu beharko ditu.

Enpresa adjudikaziodunak kontratua behar bezala garatzeko eta betetzeko beharrezkotzat jotzen diren zerbitzuak eskainiko ditu; hala nola lan-bileretara edo informazio-bileretara joatea, eta ez du lan horiek egiteagatik aparteko ordainsaririk jasoko. Betebehar horrek bermealdia amaitu arte iraungo du.

5.2 COVID-19ri dagokionez

Enpresa esleipenduna arduratuko da COVID-19k eragindako osasun-krisiari aurre egiteko beharrezkoak diren prebentzio eta segurtasun-neurriei buruz indarrean dagoen berariazko araudia betetzeaz, bereziki ekitaldia egiteko unean indarrean dagoena.

Halan da be, Torrezabalen egingo diren jardueretarako, Udalak berak Torrezabalen erabilerarako onartuta daukan araudia edo protokoloa jarraitu beharko da.

Beharrezko gastuen barruan sartzen dira, halaber, COVID-19ri eskatzen zaizkion prebentzio- eta segurtasun-neurri higienikoak betetzera bideratutakoak, hala nola edukiera-kontrolari, gelei, maskarei eta langileak babesteko beste elementu batzuei lotutako gastuak, pantaila babesleak, kartelak eta bestelako seinaleztapen-elementuak, eta abar, bai eta ekarritako altzarien eta proposatutako azpiegitura desmuntagarrien erabileraren ezaugarrietara eta intentsitatera egokitutako garbiketa- eta desinfekzio-neurriak ere.

5.3 GIZA BALIABIDEAK

Proiektuaren prestaketaren eta antolaketaren ardura zuzena eramango duen

Baliozkotze Kod.: 6A7Y67757H72WW4YQLCP3NLRS | Egiaztapena: https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 20. orrialdea, guztira 26

gutxienez 3 pertsonaz osatutako lantaldea aurreikusi da.

Horietako pertsona bakoitzak gutxienez hiru programa, proiektu, ekitaldi, ikuskizun, azoka edo euskararen kulturarekin, aisialdiarekin eta/edo sustapenarekin zerikusia duten antzeko lanen antolaketan, ekoizpenean eta/edo dinamizazioan esperientzia profesionala izan beharko du, eta ekitaldi bakoitzak bi egun baino gehiago iraun beharko du.

Lan-proposamenean edo memoria teknikoan, ordea, EZ da zehaztuko ez aipatuko lizitatzaileak proposa dezakeen pertsona kopurua, ezta euren esperientziarik ere.

Izan ere, proposamenean ez da inola ere sartuko formula bidez edo automatikoki ebaluatuko diren irizpideei buruzko informaziorik (prezioa, giza baliabideen prestakuntza eta esperientzia, gaueko zaintza…), horiek C gutun-azalean sartu beharrekoak baitira.

Lantalde horretan enpresa adjudikaziodunak zerbitzuaren gaineko ardura guztia eramango duen langile bat aurreikusiko du. Bera izango da proiektuaren koordinatzaile eta baita Udalarekin solaskide lanetan arituko dena ere.

Koordinatzaileak edo arduradunak erabateko prestasuna izango du beti, eta ondorioz, ohiko lan-ordutegitik kanpo ere erantzun beharko die kontratatutako beharrei, eta une oro harremanetan jartzeko moduan egongo da horretarako eramango duen sakeleko telefonoaren bitartez.

Zerbitzua euskaraz garatuko da. Beraz, ohiko komunikazio hizkuntza euskara izango da eta kontratuaren prestaketa eta antolaketarako esleitutako langile guztiek euskararen gaitasun maila edo jakintza egiaztatu beharko dute, honako bideetako batekin: C1 ziurtagiriaren mailaren edo baliokidearen euskara-ezagutza egiaztatu behar dute (48/2009 Dekretua, Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratua egokitzekoa).

Ama eta familia-hizkuntza euskara badute eta euskararen ahozko maila menderatzen badute, egiaztatzeko agiririk izan ez arren, euskaldun osoak direla eta maila egokia dutela dioen ziurtagiria aurkeztu dezakete, euskaltegi homologatu batek egindako idatzi baten bitartez.

Baliozkotze Kod.: 6A7Y67757H72WW4YQLCP3NLRS | Egiaztapena: https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 21. orrialdea, guztira 26

Goi mailako ikasketak euskaraz egin dutenek, hori egiaztatzen duen agiria aurkeztuko dute, eta maila egiaztatutzat emango litzateke.

Haur eta gazteentzako jarduerak proposatzen badira, eta jarduera horiek langile espezifikoek zuzendu behar badituzte (begiraleek, etab.), langile horiek, Adingabearen Babes Juridikoari buruzko urtarrilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoan aurreikusitakoaren arabera, kontratua gauzatzearekin zerikusia duen langile bakoitzaren Sexu Delitugileen Erregistro Zentralaren ziurtagiri negatiboa aurkeztu beharko dute.

Adjudikaziodunak une oro izan beharko du behar bezalako garapena, desmuntatzea, antolaketa zein koordinazioa egiteko eta kontratu hau gauzatzeak dakarren beste edozein laguntza emateko behar beste langile.

Adjudikaziodunak zerbitzua eskaintzeko behar diren langileen kostu guztiak hartuko ditu bere gain, eta ez da inola ere lan-harremanik egongo Galdakaoko Udalaren eta langile horien artean, izatekotan, enpresa adjudikaziodunaren mende egongo baitira.

Enpresak nahitaez bete beharko ditu lanaren, Gizarte Segurantzaren eta laneko segurtasunaren eta garbitasunaren arloan indarrean dauden legezko xedapen guztiak.

5.4 SORMENE AMAITU ONDOKO BALORAZIO TXOSTENA

SORMENE amaitu eta hilabeteko adjudikazioduna eragile guztiekin eta Galdakaoko Udaleko Euskara arloarekin batzartuko da eta SORMENE proiektuaren garapenaren inguruko balorazio idatzia aurkeztuko du.

Adjudikaziodunak amaierako memoria egingo du, kontratuak barnean hartzen dituen prestazioen ebaluazio orokorra jasota. Memoria horretan, besteak beste, eta gutxienez, honako alderdi hauek jasoko dira:

-Emandako zerbitzuaren deskribapena.
-Jarduera bakoitzeko erabiltzaileen kontrola eta jarraipenari buruzko txostena (datuak generoaren arabera bananduta aurkeztuko dira).
-Izandako gorabeherak, egonez gero.

Baliozkotze Kod.: 6A7Y67757H72WW4YQLCP3NLRS | Egiaztapena: https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 22. orrialdea, guztira 26

-Zerbitzu-prestazioa etorkizunean hobetzeko iradokizunak eta proposamenak.
-Egindako zerbitzuaren prestazioaren berri ematen duen argazki-erreportajea (formatu digitala).
-Memoriak SORMENE plazan parte hartu duten eragile guztien iritzi eta balorazio zehatza jasoko ditu, Galdakaoko Udaleko Euskara Arloarekin batera adostutako galdetegiari erantzunez.

Dokumentazio hori guztia idatziz eta formatu digitalean egingo da, eta Euskara Arloari eman beharko zaio.

6.- GAUZATZEKO EPEA, KONTRATUAREN IRAUPENA ETA INDARRALDIA

Kontratua gauzatzeko epea SORMENE proiektua prestatu, garatu eta ebaluatzea izango da, eta kontratu honen xede diren prestazioak osorik gauzatzeko beharrezkoak diren jarduerak garatzeko behar den denbora hartuko du.

SORMENE egitasmoa urte osoan zehar garatzen da (Koordinazioa, Talde Eragile-Aholkulariaren dinamizazioa, ikastetxeekin erlazioa, partaidetza, ebaluazioa e.a.), baina ez hilero:

2021ean: enpresa esleipendunak kontratua sinatzen duen unetik 2021eko abenduaren 31ra
2022an: urtarrilaren 1etik maiatzaren 31ra arte eta irailaren 1etik abenduaren 31ra arte.

Publikoarentzat zuzenean egindako jarduerak jasotzen dituen SORMENE PLAZA,ordea, urtean sei egunez antolatuko da:

- 2021 urtean, azken hiruhilekoan egingo da. Aurreikusitako datak: azaroaren 16tik 21era. Astearte, asteazken eta ostegunean Torrezabal Kultur etxean egingo dira emanaldiak eta ostiral, larunbat eta igandean Ardanza Parkean edo Udalarekin adostuko den erdiguneko espazio baten jarriko den karpan.
- 2022 urtean bi une desberdinetan antolatuko da SORMENE PLAZA eta une bakoitzak gune nagusi desberdina izango du:
    - udaberrian, hiru egunez, Ardanza Parkea edo Udalarekin adostuko den

Baliozkotze Kod.: 6A7Y67757H72WW4YQLCP3NLRS | Egiaztapena: https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 23. orrialdea, guztira 26

erdiguneko espazio baten jarriko den karpa izango da SORMENEren gune nagusia.

- udazkenean, Torrezabal kultur etxeko areto nagusia izango da SORMENEren gune nagusia.

Kontratoa urte betez luzatu ahal izango da. Kontratuaren luzapena eginez gero, SORMENEk hurrengo ekitaldian ere 2022ko formatuari eutsiko lioke.

7.- KONFIDENTZIALTASUN-AKORDIOA

Deitutako / esleitutako / emandako kontratazioaren xedean xedatutakoaren arabera, lanak / zereginak /
zerbitzuak gauzatzeko ez da beharrezkoa Galdakaoko Udalaren ardurapeko datu pertsonalak eskuratzea.

Horrela, kontratazio honen esparruan, debekatuta dago Galdakaoko Udalaren ardurapeko datu pertsonalak tratatzea, eskuratzea eta bistaratzea.

Datu pertsonalak ustekabean eta baimenik gabe eskuratuz gero, erakunde esleipendunak eta haren langileek konpromisoa hartzen dute ezagutzen duten informazioari buruzko sekretua eta konfidentzialtasuna gordetzeko, bai eta Galdakaoko Udaleko kontratuaren arduradunari horren berri emateko ere, albait arinen eman ere.

Horrela, erakunde esleipenduneko langileak behartuta daude datuak ez ezagutaraztera, transferitzera, lagatzera edo hirugarrenei edozein modutan jakinaraztera. Betebehar hori mantendu egingo da, nahiz eta tratamenduaren ardura duen erakundearekin izandako harreman juridikoa amaituta egon.

Oro har, Galdakaoko Udalak ezarritako eta igorritako informazioaren segurtasuneko neurriak eta jarraibideak bete behar dira.

8.- ZEHARKAKO LERROAK

Zeharkako lerroak izango dira kontratatutako zerbitzuak garatu eta sustatutako

Baliozkotze Kod.: 6A7Y67757H72WW4YQLCP3NLRS | Egiaztapena: https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/
esPúblico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 24. orrialdea, guztira 26

jarduera guzti-guztietan agertu behar diren horiek.

8.1. HIZKUNTZA-IRIZPIDEAK

Kontratu hau Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuak 6. artikuluan finkatutako hizkuntza- ofizialtasun bikoitzeko araubideari lotuta dago; euskararen erabilpena arautzeko azaroaren 24ko 10/1982
Oinarrizko Legeak eta berau garatzen duen araudiak erregulatzen dute hori.

Kontratu honek dituen ezaugarrien arabera, zerbitzua euskaraz garatuko da, kontratuaren xedea baita horrela gauzatzea.

Hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna.
Enpresa adjudikaziodunak euskaraz aritzeko eta komunikatzeko gaitasuna duten behar beste langile bideratuko ditu herritarrekin harreman zuzena izatea dakarten funtzioak betetzera, plegu honetan zehaztuta datorren eran.

Hizkuntza-paisaia eta komunikazio idatzia
Errotuluak, seinaleztatzeak eta gainerako komunikazio orokorrak egingo balira piktograma baten bidez egingo dira, euskarazko azalpen-mezua ondoan dutela, beharrezkoa balitz.
Piktogramaren bidez ezin bada egin, euskaraz egingo dira mezu ezagunak eta ulergarriak direnean.
Aurreko bi neurri horiek aurrera eramaterik ez balego, hizkuntza bietan egingo da, euskara lehenetsita, Galdakaoko Udalaren Euskara Zerbitzuak adostasuna eman ondoren.
Era berean, kontratuaren xede diren dokumentu idatziak, memoriak, informazio-zirkularrak, gutunak edo bestelako lanak, Udalari, erabiltzaileei, herritarrei emateko eta/edo jendaurrean jartzeko badira, euskaraz eta gaztelaniaz egingo dira. Hala ere, euskarak izango du lehentasuna, formari eta/edo tokiari dagokionez, eta euskara hutsez horietatik zein egin daitekeen aztertzea ere alde batera utzi gabe.

Herritarrekiko erabilera.
Galdakaoko Udalak onartutako hizkuntza-irizpideekin bat etorriz, eta eman beharreko zerbitzuak eskatzen duen bezala, erabiltzaileei harrera euskaraz emango zaie lehenik

Baliozkotze Kod.: 6A7Y67757H72WW4YQLCP3NLRS | Egiaztapena: https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 25. orrialdea, guztira 26

beti.
Halanda ze, kontratistak behar beste bitarteko material eta giza baliabide bideratu beharko ditu zerbitzuaren hartzaileei harrera, informazio eta komunikazioa une oro euskaraz egin ahal izateko.

8.2. GENERO IKUSPEGIA

Galdakaoko Udalak generoaren arloan ezarrita dituen irizpideak nahitaez bete beharko ditu kontratazio honek. Horrenbestez, genero-ikuspegia une oro hartuko da kontuan kontratatutako lanaren garapenean. Kontratuaren ondorioz sortzen diren dokumentazio, idatzi, publizitate, ohar, abisu eta/edo materialetan hizkuntza inklusiboa erabiliko da eta irudi ez sexistak agertuko dira.

Genero estereotipoei dagokienez, irudi anitzak bermatuko dira, edertasun-kanonetatik eta sexu bakoitzak bizitzako arloetan betetzen dituen eginkizunei buruzko estereotipo sexistetatik ihes eginez.

Pertsonen partaidetza paritarioa ikusaraziko da: sexu bien presentzia orekatua, plurala eta anitza, gure

errealitatearen benetako aniztasuna adieraziko duten ereduak gailenduz.

Era berean, emakumeek sustatutako edo egindako jarduerak bereziki zabalduko dira, existitzen den genero arrakala gainditzeko asmoz.

Emakumeen eta gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeak, eta Galdakaoko Udalak indarrean duen Berdintasun Planak jasotako irizpideak aintzat hartu eta beteko dira.

ELEKTRONIKOKI SINATUTA

Baliozkotze Kod.: 6A7Y67757H72WW4YQLCP3NLRS | Egiaztapena: https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 26. orrialdea, guztira 26